

Elgoibar - 1274. zenb.  
XXI. urtea - 2023-02-10

TOKIKOM

BARREN

# Dantza garaikidearen bidean

Nora Astigarraga

**10 Egun Kia.**  
Otsailaren 9tik 20ra

**Naia Car**

Apalategi auzoa, 1  
Eibar, Gipuzkoa  
943 70 70 33  
[www.naiacar.com](http://www.naiacar.com)

Kontratatu auzoponen bati-rtzei eta  
betekuntzei [www.kia.com/estogannen](http://www.kia.com/estogannen).  
Egutza narek Permituzako, Balaentakua,  
Makako eta Andorako Kia  
kontratuaren sartze bati-rtzei.


**KIA**

# ELGOIBAR BHI INSTITUTUA

# 2023-2024 Zatoz!

2023/24 ikasterterako DBHko aurrematrikula  
otsailaren 13tik otsailaren 24ra  
Elgoibarko eta Mendaroko gurasoentzat bilerak:

Otsailaren 15ean, arratsaldeko 18:00etan  
Ezenarro eraikuntzako (Mekan), Areto Nagusian.



Elgoibar BHI  
www.elgoibarbhi.eus

I Arregitorre 2  
943 599 316

013431aa@hezkuntza.net



Elgoibarko  
Herri Eskola

Kalamus, 8  
943 740 875

012777aa@hezkuntza.net



Kilmon elorribidea, 2  
943 756 141

012369aa@hezkuntza.net



Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.  
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoan erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasaola, Maialen Sanchez, Leire Kerexeta. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.885 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



[facebook.com/barrenaldizkaria](https://facebook.com/barrenaldizkaria)



[twitter.com/barreneus](https://twitter.com/barreneus)



[instagram.com/barrenaldizkaria](https://instagram.com/barrenaldizkaria)



[youtube.com/@Elgoibarrennet](https://youtube.com/@Elgoibarrennet)

Ane Kortaberria

Ikasle ekintzailea

## Proiektu, pasta eta gorabehera ugari lau urtetan



**"Ahalegintzen denak  
gehienetan  
helburuak betetzea  
lortzen du"**

**G**ezurra dirudi, baina konturatu orduko hara non eta hemen nago! Unibertsitatean sartu nintzenetik lau urte pasatuko dira laster, eta orain, graduatu aurretik egin beharreko azken proiektua besterik ez zait falta etapa honi amaiera emateko.

Testuinguruan jartzeko, graduoko lehen urtean, sartu bezain pronto, enpresa bat sortzen dugu, gure ikasketa prozesuaren erreminta dena. Batzuetan sinestezina iruditzen zait hasieran sortu genuen taldeak lau urtez bizi iraun izana.

Askotan pentsatu izan dut *Operación Triunfo* edo *El Conquistador Del Fin Del Mundo* bezalako reality baten barruan bizi izan naizela. Haatik, taldekideak lankide ere izateak ekarri dituen desadostasun eta poztasun guztiak ez dira gutxi izan, baina argi dago bai pertsonalki, bai profesionalki honek eraldatu egin nauela.

Helburu ekonomikoak lortzeko, hamaika orduz kalean tabernetako terraza guztietako mahaietatik, pasta, gozoki, kaktus edo kandelak saltzen jardutetik, beste hainbat proiektu garatzea ere lortu dudala esan dezaket. Besteak beste, Covid-19arengatik bertan behera geratu zen balioetan oinarritutako kirol programa, dronei buruzko hezkuntza tailerrak, Lizagasar Elgoibarko enpresarekin batera sortutako bisitak, baita Arabako Foru Aldundiarekin eta Hego Koreako kideekin egindako ikerketa ere. Hauek denak, izugarriko ahalduntze esperientziak izan dira zalantzarik gabe.

Bide honetan, batek baino gehiagok errepikatu izan dit ahalegintzen denak gehienetan helburuak betetzea lortzen duela. Ametsetakoz mezua dirudien arren, lehen pertsonan bizitzeak ekiten jarraitzeko esperantza eman dit. Beraz, esker on mezua zabaldu nahi dut bidai honen parte izan ditudan guztien artean. Noski, noizbait pasta kaxa edo bestelakoren bat erosi didan horietakoa bazara, mila esker!

*BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus*

-----

### **Eskerrik asko**

Beste 700 zuhaitz! Larunbateko eguna paregabea izan da! Zuen babesa oso garrantzitsua da guretzat eta zoragarria da elkarrekin gauza handiak lor ditzakegula ikustea.

Eskerrik asko landaketa honetan parte hartu duzuen guztioi! Zuhaitzak landatzen aritu zaretenoi, @lurgaiafundazioa-ri, lurjabeei, Soraluzeko Baso Biziak elkarteari zuen tresnak lagatzearen, hamaiketako zoragarria prestatu diguzuenoi, materiala lursailera eramaten lagundu digunari, Sallobente elkartekoei eta Danobat kooperatibari. Eskerrik asko guztioi!

### **Elgoibarko Baso Biziak**

### **Eup!**

Otsailak 4, Santa Ageda bezpera da. 09:00ak dira eta Kalegoen plazan bildu gara 26 lagun. Etxegiñaren taldekoak ere inguruan dabilta. Denok batera erretratua atera eta hamahiru laguneko bi taldetan banatu ondoren hartu dugu baserri-auzoetako bidea. Baserri atarietan egin dugu bat gure herriko baserriarrek: eupadak, agurrak, koplak, limosna, trikiti-hotsa, esker-erateak, irribarreak, malkoak, besarkadak, jan-edanak... 30 urtean afaltzen eman diguten Agustini eta Balentini eskerrak eta erregalu bana eman dizkiegu. Bi urteko etena eta gero, berriz ere berreskuratu dugu santa eskearen esentzia.

Laurak ingurura arte jardun dugu kantuan eta eskean. Ordu horretan hartu dugu Idotorberako bidea. Izan ere, Atxutxiamaikaren bueltan sortu dugun guraso eta umeen taldekoak zain dauzkagu. Heldu garenean... zenbat ume! Zenbat kolore! Zenbat kantu! Zenbat poz eta irribarre! Oso gustura ibili direla esan digute. Zazpi baserri koplatu dituztela.

Denok batera bazkaldu dugu Idotorbeko soziedadean. Bazkalostean esan diogu "eskerrik asko eta nahi duzun arte, Jabier". 30 urtean koplak-kantari jardun ondoren, aurtengoa azkena izango duela esan digu Ziardak. Berarentzat

ohore bat izan dela, bere bihotzean eramango gaituela. Gu ere ez gara berarekin ahaztuko; asko eman dio gure taldeari. 19:30ak etorri zaizkigu gainera. Idotorbeko soziedadeko argiak itzaltzeko ordua da. Furgoneta eta kotxeetan sartu eta kalerako bidea hartzeko ordua. Argiak itzaltzearekin batera etorri zaizkigu akordura aurtengo antolakuntzan lagun izan ditugunak: trikitilariak lotzen lagundu diguzuenak, Idotorbeko soziedadekoak, Iñigo, Maritxu, Iñaki, Untzon, Julen, Arkaitz, Asier, Urra, ... Eta, batez ere, baserri atarietan hain gozo hartu gaituzten baserriarrek gogoratu gara. Haiengatik egin dugu.

Datorren urtean ere berezia izango da otsailaren 4a.

### **Elgoibarko Izarrako Santa Ageda taldea**

### **Eskerrik asko**

Lerro hauen bidez, Mendaroko Gazteak euskal dantzarien taldetik eskerrak eman nahi dizkiegu zapatuan santa eskean aritu ziren lagun guztiei, geure-geurea den usadioari eusteagatik eta baserri baserri eta kalez kale batu zuten dirua geuri ematea erabaki dutelako. Eskerrik asko haiei, akorduegatik, eta eskerrik asko, bihotz-bihotzez, eskekoekin horren eskuzabalak izan zineten guztioi. 1.150 euro jaso ditugu, laguntza handia, eta diru horrekin dantzarako zaletasuna hauspotzen jarraituko dugu guk; euskal kulturaren sozializatzeko aukerak sortzen, eta herria egiten.

### **Mendaroko Gazteak euskal dantzari taldea**



Zuen keak, galderak edo txaloak bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)



943 744 112



688 655 658



### Herri Eskolako patioa itxita egoten da asteburuetan:

"Pandemian hasi ziren Herri Eskolako patioa ixten, eta oraindik ere ez dute zabaltzen. Jolasgune estali bakarrenetakoa da eta eguraldi txarrarekin aukera ona izaten da jolaserako. Eskertuko genuke berriz ere zabaltzen hasiko balira".



### Txakurrak lotuta eraman behar dira:

"Txakurjabe askok txakurrak solte eramaten dituzte herri barruan eta inguruko auzoetan. Berdegune apur bat ikusten badute, pentsatzen dute txakurrak solte eramateko eskubidea dutela, baina legez txakurrak lotuta joan behar dira jendea ibiltzen den lekuetan. Txakur batzuek jendeari salto egiteko ohitura dute, eta nahiz eta intentzio txarrez ez egin, jende askok beldurra diete txakurrei. Mesedez, txakurjabeek eskatzen diet txakurrak lotuta eramateko".



### Txalo bat Elgoibarko Baso Biziak Taldeko kideentzat:

"Eskerrik asko, bihotzez, Elgoibarko Baso Biziak elkarteko kideei, larunbat honetan, Muskiritzuko magaleko lursailetan, bertako 700 zuhaitzetik gora landatzeagatik".



**Jarri ezazu zure publizitatea  
BARREN astekarian edo  
[www.barren.eus](http://www.barren.eus) webgunean**  
**943 743 704  
688 769 657**  
[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)  
BARREN Aito Agirre Kulturgunea, 3. 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

**MEKANOSA**  
Errosario, 27-Elgoibar  
**943 740 284**

- IDAZMAKINEN SALMENTA
- ETA KONPONKETA
- MULTIKOPISTAK
- FOTOKOPIAGAILUAK
- ERLOJU INDUSTRIALAK
- MARRAZKETA MATERIALA
- INFORMATIKA
- FAXA

## Hemen bertako 700 bat zuhaitz landatu dituzte Baso Biziak taldeko kideek Muskirutzu inguruan



Elgoibarko Baso Biziak taldearen deialdiari erantzunez 50 bat boluntario elkartu ziren zapatuan Muskirutzuko magalean, bertako zuhaitz espezieak landatzeko. Denen artean, bertako 700 zuhaitz landare landatu zituzten, bi lurjabe Lurguia Fundazioari eta Baso Biziak taldeari lagatako bosna hektareako bi sailetan. Besteak beste, pagoak, haritzak, lertsunak eta sagarniak landatu zituzten. "Zuen babesa oso garrantzitsua da guretzat, eta zoragarria da

elkarrekin gauza handiak lor ditzakegula ikustea", adierazi dute Elgoibarko Baso Biziak taldekoek. Era berean, eskerrak eman dizkiete landaketan parte hartu duten guztiei: Zuhaitzak landatzen aritu zirenei, Lurguia Fundazioari, lurjabeei, materiala traktorean igo zuenari, Soraluzeko Baso Biziak elkarteari landaketarako tresnak lagatzearren, hamaiketako zoragarria prestatu zuteneo, Sallobente elkartekoei eta Danobat kooperatibari.

### Txankakuaren Gabonetako zozketako zenbaki saritu batzuen jabeak ez dira agertu oraindik

Txankakua merkatarien elkarteak Gabonetan zozketa egin zuen eta urte hasieran eman zuten saritutako zenbakien berri, baina horietako batzuen jabeak oraindik ez dira agertu. 1.800 euro zozkatu zituzten guztira: 500 euroko bi sari eta 100 euroko zortzi sari. Otsailaren 9an bukatuko da epea eta zenbakia dutenek Txankakuako denda

batera joan edo 943 747 301 zenbakira deitu behar dute. Hauek dira agertzeko falta direnak:

**05.583:** 500 euro (Ordezkoa agertu da: 77.662)

**33.331:** 100 euro (39.184 ordezkoa)

**65.926:** 100 euro (34.623 ordezkoa)

**40.608:** 100 euro (ordezkoa agertu da: 36.440)


### Energia tailerra egin dute Elgoibar Ikastolan

Agenda 30 egitasmoaren aurtengo lema *Energia, bizitzaren motorra* da, eta horren barruan, energia tailerrak egin dituzte aste honetan Elgoibar Ikastolan Eko Oiz elkartearekin. Energia berriztagarri mota desberdinak ezagutzeko aukera izan dute ikasleek, alderdi teorikotik lehenik eta praktikotik ondoren, eta hainbat maketa eraikitze eta probatzeko aukera ere izan dute. Energia iturri naturalak erabiliz, argia, mugimendua edota beroa nola lortu aztertu dute. 250 bat ikaslek hartu dute parte saioetan.



## Gerrako umeek Sobietar Batasunean bizi izandakoak azalduko ditu Amelia Asensiok

**E**lgoibar 1936 taldeak antolatuta, *Gerrako umeak Sobietar Batasunean* hitzaldia emango du gaur zortzi Amelia Asensio elgoibartarrak. Bere familiaren historia kontatuko du Asensiok. Aita Jose tolosarra zen, eta 36ko gerran Sobietar Batasunera ihes egin behar izan zuen, Habana itsasontzian. Familia ezkertiarreko kide zen Jose, zazpi neba-arreben artean seigarrena. 36ko Gerra hastearekin batera, Bilbora joan ziren eta han jakin zuten Errusia, Kuba, Belgika eta Ingalaterra 14 urtetik beherako umeak hartzeko eskaini zirela. 13 urteko Jose eta 6 urteko haren arreba Francisca aukera horretaz baliatuta joan ziren Sobietar Batasunera. Hasieran dena ondo joan zitzairen, baina Alemaniak Errusia erasotu zuenean Josek armak hartu behar izan zituen. Bederatzi



hilabetez jardun zen II. Mundu Gerran borrokan. Hura amaitzean, arrebaren lagun bat ezagutu zuen, Angeles Perez asturiarra, eta harekin ezkondu zen, Moskun. Harreman hartatik jaio zen Amelia bera, eta zortzi hilabete zituela lortu zuten bere gurasoek etxera itzultzeko baimena. Musika Eskolan izango da hitzaldia, 19:00etan.

### Amaitu dituzte Toletxe kaleko asfaltatze lanak



Hiru bat hilabetez itxita egon ostean, aste honetan bertan zabaldu dute Toletxe kalea. Asfaltatze lanak hasi zituzten urrian, eta dagoeneko amaitu dituzte. Bi lan egin dituzte ingurune horretan. Batetik, Gipuzkoako Urak-ek estolderia eta ur-sarea berritu du kale horretako 22-30 zenbakien inguruan. Elgoibarko Udalak, bestalde, errepidea asfaltatu du, eta espaloia zabaldu du. Orain lurra margotzea falta da.

### Bilerara deitu ditu herritarrak Mendaroko EH Bilduk, Udal Hauteskuendeei begira


Maiatzaren 28an izango dira Udal Hauteskuendek, eta horren harira, bilera antolatu du Mendaroko EH Bilduk. Otsailaren 17an izango da, 18:30ean, Udaletxeko pleno aretoan. Besteak beste, ondorengo puntuak landuko dituzte: orain arte egindakoak, aurrera begira egin beharrekoak eta hautagaien zerrenda.

### Odol ateratzeak gaur, Elgoibarren

Odol ateratzeak egingo dituzte gaur Elgoibarren, 16:30etik aurrera. Jubilatuen Biltokian egingo dituzte ateratzeak, eta txanda hartzeko eskatu dute arduradunek. Horretarako whatsapp bidez mezua bidali behar da 623 328 408 telefono zenbakira.

## Puntu ilunak argitzen ari da Elgoibarko Udala

Trenbide kalean egin zuten moduan, herriko beste bi puntu beltz argitu ditu Elgoibarko Udalak azken asteotan. Batetik, Ikastolako frontoira doan arrapalan jarri dute farola, eta horri esker, gune hori herritarrentzako "seguruagoa" da orain. Era berean, Olaso industrialdean falta zen argi puntua berrezarri dute. Izan ere, kamioi batek bidegurutzean bi farola jo ostean argi puntuak hondatuta zeuden. Eremu berean, hiru luminaria dituen zutabe bakarra jarri dute, esparru osoa argitzeko, eta zutabea espaloitik kanpo jarri dute ibilgailuek jo ez dezaten. Babes metalikoa ere jarriko dute zutabearen aurrean herritarren segurtasuna bermatzeko.



### Interneteko bilaketetan negozioen presentzia hobetzeko tresnei buruzko ikastaroa, enpresa eta autonomoentzat

Google Business tresnari buruzko ikastaroa antolatu dute Elgoibarko Udalak eta Debegesa Eskualdeko Garapen Agentziak, autonomoei eta tokiko enpresei digitalizazioan laguntzeko eta tresnak eta prestakuntza eskaintzeko. Otsailaren 21ean izango da, Elgoibarko Aita Agirre Kulturgunean, 15:00etatik 16:30era. Itziar Martinez Ceberio donostiarrak emango du ikastaroa, marketin digitalean, sare sozialetan eta sormenean espezializatutako aholkulariak. Antolatzaileek azaldu dutenez,

enpresa-profila sortzen eta pertsonalizatzen lagundu nahi diete profesionalei; Google bilatzailea eta tresna horrek dituen hainbat funtzio azaltzea eta erabiltzen erakustea, "euren negozioaren presentzia hobetzeko tokiko bilaketetan". Izena emateko honako esteka honen bidez bete behar dira datuak: <https://labur.eus/3dN98>. Edozein zalantza argitzeko [ekintzaile@debegesa.eus](mailto:ekintzaile@debegesa.eus) helbidera idatzi edo 943 820 110 telefono zenbakira deitu daiteke.

### Langabezia tasak behera egin du Debabarrenean

Urtarrileko datuen arabera, 475 langabe daude enplegu bulegoetan erregistratuta Elgoibarren, eta langabezia-tasa %8,76koa da. Langabeziak, berriz, apur bat behera egin du azken hilabeteen herrian. Joan den hilabeteko datuen arabera 480 lagun zeuden langabezia eta langabezia tasa %8,85koa zen. Mendaron, berriz, apenas egon da aldaketarik, eta 76 langaberekin %7,48koa da langabezia-tasa. Bi herrietan eskualdeko batezbestekoaren azpitik dago langabezia tasa. 2.610 langabe daude Debabarrenean (%9,96). Deba (%6,36), Eibar (%11,41), Elgoibar, Mendaro,

Mutriku (%7,82) eta Soroluzeko (%12,92) datuak kontuan hartuta.

2022. urteari begiratzuz gero, berriz, bailarako datuak zertxobait hobetu ziren urte hasieratik bukaerara bitartean. 2022. urtea 2.679 langaberekin (%10,22) hasi zuen Debabarrenean eta 2.640rekin (%10,07) amaitu zen urtea. Hau da, 39 lagun gutxiago zeuden lanik gabe. Alabaina, herriz herri aztertuz gero, Elgoibarren, Deban eta Soroluzen gora egin zuen langabeziak 2022an, eta gainerako herrietan, berriz, apurtxo bat behera.




# Ospasen kirol-gunea eraikitzeko bi aukera aurkeztu ditu Mendaroko Udalak

**I**-ingenia, ingeniería y arquitectura S.A enpresak egin du bideragarritasun-azterlana eta bi dira Ospasko eremuan, katastroan landa-lur kategoria duen eremuan, kirol-gunea eraikitzeko aurkeztu dituen aukerak. 17.000 metro koadroko azalera du eremuak eta 3.371 euroko balioa katastroan, eta A-8 autobidearen ondoan dago. Proposatutako bi aukerak 350-400 ikuslerentzako harmaila estalia izango duen futbol zelai homologatua (100X63 neurrikoa eta belar artifizialduna), kafetegia, 250 metro koadroko gimnasioa -futbol zelaiarekiko independentea-, bost aldagela (hiru futboleko ariko direnentzat eta bi gimnasiokoentzat), erabilera askotarako gelak eta zerbitzuetarako espazioa hartzen ditu kontuan, bai eta 76 ibilgailuentzako aparkalekua ere ipar hegian. Alkateak esan du Udalak ia urte hasieran bultzatu zuen Kirol Azpiegituren Mapan jasotakoari erantzunez enkargatu dutela azterketa. Inkesta bidez zer nolako kirol instalazioak nahiko lituzketen galdetu zieten herritarrei, eta kirol-gunea, estali gabeko igerilekuak, bidegorria eta futbol-zelaiaren lehenetsi zituzten haiek. 190 lagunek erantzun zuten.

Ospas ingurua haitz askokoa eta maldatsua da (%30eko pendiza du batez beste erdialdean), eta bereziki horrek baldintzatzen du proiektua bera. Futbol zelaiaren eraikitzeko ingurua lautu egin behar da, baina goiko aldean kendu beharko luketen lurra gutxi-asko beheko aldean betetzeko beharko luketena dela zehaztu zuten ingeniariak. Lurra mugitzearekin batera, baina, euste-horma bana eraiki beharko lituzteke; bata, mendimazela goialdean eta bestea, beheko aldean. Bi aukeretan, baina, lehenengoa hobesten dute ingeniariak, lur gutxiago mugitzea eskatzen duelako, eta ondorioz, merkeagoa ere badelako.

**1. aukera.** Ingeniariak hobesten duten aukera da. Futbol zelaiaren harmaila mendi aldera eraikiko lukete eta gainerako instalazioak ekialdera, herri parterago. Horrek esan nahi du goian, mendi aldera, lur eta harri bolumen txikiagoa pikatu eta hustu beharko luketela: 15.000 m<sup>3</sup>, eta behean, gutxiago bete, instalazioek



1. aukera

beteko luketelako zati bat. Instalazioak herrira begira eraikiko lituzkete eta kristalera izango lukete, argitasun handiagoa izateko. Bistak ere hobeak lirateke beraz, bigarren aukeran baino. Aurrekontu totala: 5.799.015,12 euro

**2. aukera.** Lur mugimendu handiagoa eskatzen du, gimnasioa eta gainerako gela eta zerbitzuak harmailen azpian eraikiko lituzketelako, 120 metro luze eta zortzi metro zabal hartuko lukeen tartean. Goiko aldean 21.000 metro kubiko lur eta harri gehiago hustu beharko lukete, eta beheko aldean, 7.000 metro kubiko gehiago bete. Aurrekontu totala: 6.202.145,56 euro.

Bideragarritasun-azterlana da aurkeztu dutena. Aurrera egitea erabakiz gero, ondorengo pausoak eman beharko lirateke oraindik: lursaila birsailkatu, exekuzio-proiektua idaztea lizitaziora atera, idatzitako proiektuaren arabera obra gauzatu eta ustiapen-plana idaztea lizitaziora atera.

# AGENDAK, DANTZAN

✂️👩 Aina Argoitia

Sagardotegi denboraldia hastean batera ohartarazi zuten sagardogileek gero eta praktika ohikoagoa dela bezeroek erreserba egin eta ondoren ez agertzea, eta horregatik, pertsonako bosna euroko fidantza kobratzea erabaki dute aurten hainbat sagardotegitan. Baina praktika hori ez da sagardotegietara mugatzen, gertatzen baita jendearekin aurrez aurre lan egiten duten gainerako zerbitzuetan ere. "Pandemiaz geroztik, gainera, nabarmenagoa da", adierazi du Lucia Dieguez Mendaroko Lutximak ile-apaindegikoak. Nekatuta daude, eta haserre ere bai hein batean, baina ezinegon hori agertzeko ere lotuta sentitzen dira askotan, bezeroekin ari direlako.

"Bezero batzuk ez dira ohartzen egiten diguten kalteaz, eta kargu hartuz gero, haserretu egiten zaizkigu. Benetako arazoa dugu hau, eta kudeatzeko, zaila", gaineratu du Olaia Martinez Olaia estetikakoak. "Iruditzen zait guk haiei zor diegun errespetua geuretzako eskatzea ez dela gauza handia", gehitu du Dieguezek.

Beti gertatu izan den kontu bat dela diote denek, zer esanik ez uda sasoiaren edo eguraldi oneko egunetan eta jai bezperetan, baina pandemiak hori egiteko bidea erraztu duela uste dute. Pandemiaren gogorrean, eztarriko lakarra, eztula edota bestelako sintomak izatea

Aurrez erreserba egin edo txanda hartu, eta eguna eta ordua iritsitakoan, agertu ez. Beti gertatu izan den zerbait dela aitortu dute zerbitzuetan lan egiten dutenek, baina pandemiak geroztik nabarmenagoa da. Horregatik, zenbait neurri hartzea behartuta sentitu dira jatetxe handietan eta hainbat zentrotan, berdin ile-apaindegietan, estetika zentroetan nahiz osasunari lotuago dauden zerbitzuetan. Agendetan izaten duten dantzaz hitz egiteko, hiru lagunengana esanak bildu ditugu gaur. Beren ahotik ari dira, baina askoren eguneroko arazoaz.



*"Iruditzen zait guk haiei zor diegun errespetua geuretzako eskatzea ez dela gauza handia"*

nahikoa arrazoi zen erreserbak bertan behera lagatzeko edota kontsulta-ordura agertu ezina justifikatzeko. Baina, komunitatea babesteko justifikazioa zena aitzakia bihurtu dute askok. Gero eta gehiagotan gertatzen da abisatu gabe bezeroa jarritako ordura ez agertzea, edota bezeroak azken unean jakinaraztea ez dela joango, eta horrek neurriak hartzea behartu ditu zerbitzuetakoak, erraza ez zaiela aitortu arren. "Lagunei ere abisatu egiten diegu elkarrekin dugun planera agertu ezin bagara. Eta bezeroei horixe eskatzen diegu: etorri ezin badira, denboraz abisatzeko, gutxienez 24 orduko tartearaz. Gu ez gaude hemen gora begira

eta gure orduak ez du haienak baino gutxiago balio. Errespetuz jokatzea eskatzen diegu, bai gurekiko eta bai minez egon daitezkeen beste bezeroekiko ere", adierazi du Javi Muñoz Fisio&Mas-ekoak.

Elgoibarko zentroa zabaldu aurretik Madrilan lan egin zuen Muñozek, zazpi fisioterapeutako zentro bat koordinatzen eta han ezinbestean martxan jarri zuten sistema berbera aplikatzen du egun Elgoibarko bere zentroan, duela hamar bat urtetik. "Ordu eske deitzen duten guztiei azaltzen diet etorri ezin badira 24 orduko tartearekin abisatu behar dutela, bestela kobratu egingo diegula txanda, eta era berean, azaltzen diet bezperan gogorarazpen mezu bat jasoko dutela. Beraz, zerbitzua hartzera datorrenak ezagutzen ditu hemengo baldintzak. Jakina, badaude salbuespenak ere, azken orduko larrialdiak denoi gerta dakizkigulako, baina aitzaki merkeak eta gezur txikiak gehiago izaten dira eta horien kontra egiteko neurriak dira hauek". Aitortu du "beldur puntu batekin" hartu zituela neurriok bere garaian, eta gaur oraindik, hasierako kezka bera izaten duela batzuetan, baina garbi du galtzeko ere ez dagoela eta bezeroari ulertuarazi behar zaiola betebeharrak ere badituela. Gero eta gauza gehiago aurrez ordaintzera behartzen gaituzten garaiotan, elkarrizketatuei zaila egiten zaie ulertzea bezero batzuek zergatik okertzen dieten muturra, baldintzak bete ez dituztelako kontsulta-ordua kobratu behar dietela esaten dietenean. "Internetez egiten diren erosketak, hoteletako egonaldiak, hegaldiak... aurrez ordaintzen ditugu eta eragozpen handirik gabe onartzen ditugu jartzen dizkiguten baldintzak. Guk kontu hartzea, baina, ez dute begi onez ikusten. Ez dakit konfiantzagatik den edo zer", azaldu du Muñozek.

Iritzi berekoak dira Olaia Martinez eta Lucia Dieguez ere. Erreparo denekin eta kezka puntu batekin, baina haiek ere hasi dira neurri batzuk hartzen beren zentroetan. Hogeita lau orduko tarteari abisatu ezean, zerbitzuaren erdia kobratzen hasi dira bezeroei. Tratamenduren baterako bonoa hartua duten bezeroen kasuan, berriz, egun horretako saioa emantzat ematen dute, eta kasuren batzuetan, bezero batzuei aurrez kobratzen ere hasiak dira Olaianean. "Bezeroek ulertu behar dute beraiek datozenerako guk dena prest izaten dugula, eta

tratamendu jakin batzuetarako, gainera, beste langile batzuk kontratatuta ditugula eta haiei berdin-berdin ordaindu behar diegula ordua, zerbitzua eman ala ez", esan du Martinezek. Konpromisoak "alde bikoak" izan behar duela nabarmendu du. "Malgutasunez jokatzeko dugu guk beti, baina logika baten barruan. Esandako ordurako etorri eta estetika zentroa itxita topatuko balute aurrez inolako abisurik gabe, zer sentituko lukete?".

Ez dira hasi berriak sektorean eta makina bat aitzaki eta "gezur txiki" entzun behar izan dituzte, buztan laburrekoak denak. "Konturatzen zara txanda hartzeko deitu egiten duten askok whatsapp erabiltzen dutela azken orduan ez datozela jakinarazteko. Telefono pribatura bidaltzen digute mezua, badakitenean

*"Malgutasunez jokatzeko dugu, baina logika baten barruan beti. Esandako ordurako etorri eta zentroa itxita topatuko balute, zer sentituko lukete?"*



lanean ari garenean astirik ez dugula izaten eskuko telefonoari erreparatzeko eta irakurtzen dugunerako berandu izan daitekeela. Horregatik zehaztu dut txanda bertan behera lagatzeko baldintzetan hori: ile-apaindegiko telefonora deitu behar dela, 24 orduko tartearekin", gehitu du Dieguezek. Aurreikusten dute denbora batez tirabirak izatea bezeroekin hartutako neurrien harira, eta bezero bat edo beste galtzeko arriskua ere bere egin dute. Hala ere, garbi dute ondoriorik sentitu ezean nekez aldatuko duela jende batek jarrera eta luze gabe profesional guztiak egongo direla antzeko neurriak hartzera behartuta. "Lankideak beti esaten dit malguedi jokatu izan dugula. 'Ez da ezer pasatzen' izan da beti gure esaldia, baina bai, pasatzen da", azpimarratu du Martinezek.

### Lan profesionalari, bere balioa

Batzuetan zalantza egiten dute jendeak beren lanari ematen dion balioaz ere, gertatu izan zaielako aspaldian emandako txanda bat aldatzeko eskatzea bezeroak, egunean bertan beste planen bat suertatu zaiolako. Deitu izan diete bezeroek esanez dentistak txanda aurreratu diela edo eskolan ordu hori eman dietela irakasleak biltzeko. "Baina gurekin ordua hartua badute, zergatik ez diete dentistari edo irakasleari esaten beste ordu bat emateko? Beren arazoan konplize egiten gaituzte eta askotan sentitu dut beti gure agendak direla dantzan jarri behar direnak", dio Dieguezek. Eta hari horri heldu dio Martinezek. Tratamenduetarako bonoak eskaintzen dituzte Olaia estetikan, eta iraungitze-data bat izaten dute guztiak, produktuak garestitzen diren neurrian ezinezkoa zaielako denbora luzez prezio bereberari eustea, baina gertatu izan zaie iraungitako opari-bonoekin etortzea bezeroen bat eta ez onartzea balioa galdu duela. "Haserretu egiten zaizkigu, baina La Vida es Bella opari-txartel ezaguna iraungi zaion inori ez zaio bururatzen ezer erreklamatzeko hastea. Zergatik egiten dute bereizkeria hori gurekin?". Hala ere, askotan azkenekoak direla sentitu arren, ingurura begiratu eta antzera ikusten ditu beste profesional asko. "Flipatu egin nuen, fisioterapeuta batek, ustez osasunari lotuago dagoen zerbitzua ematen duen profesional batek, aitortu zidanean eurek arazo bera zutela".



*"Errespetuz jokatzeko  
eskatzen diegu bezeroei,  
bai gurekiko eta baita minez  
egon daitezkeen beste bezeroekiko ere"*

Bezeroek nola hartu duten galdetuta, erantzuna argi dute: "Batzuek arazo gabe ulertu dute, eta beste batzuek ez dute ulertu nahi". Muturreragi jo dutela ere leporatu izan diete banaka batzuek eta abisu-sistema jarrita balute halakorik ez litzaikeela gertatuko ohartarazi diete. "Bezperan abisatzeko sistema jartzeko ere esan izan didate, hori bagenu jende gutxiagok huts egingo lukeela arrazoituta, baina ez dugu uste gure ardura izan behar duenik abisatzeak, ezta horrek arazoa amaituko lukeenik ere, sistema hori badutenei ere gertatzen zaielako". Fisio & Mas zentroko Javi Muñozek ikusi dio onurarik abisu-sistema ezartzeari, absentismoa %69 bat murriztu duela ikusi duelako, baina hala ere, garbi du: "Niretzat gehiago da hezkuntza kontu bat; konpromiso eta errespetu kontu bat".



Kudeatzeko zaila zaien arazoaz mintzo dira gero eta zerbitzu gehiagotako profesionalak. Aste honetako erreportajearen, hiru lagunen esanak bildu ditugu, eta haiek esandako askorekin bat datoz orrialde honetan batu ditugun beste establezimendu hauek eta hemen falta diren beste zenbait ere. Beren lana eta beren lan-orduak aintzat hartzeko eta errespetuz jokatzeko eskaerarekin bat egin dute denek.



Mendarozabal Kalea, 4

Hitzordurako:  
943 03 38 35 / 613 995 572



San Frantzisko Kalea, 21

Hitzordurako:  
943 74 03 59



Errosario Kalea, 20

Hitzordurako:  
943 24 62 25

*Agurtzane ileapaindegia*



Santa Ana Kalea, 18

Hitzordurako:  
943 74 18 64



Aita Agirre Kalea, 20

Hitzordurako:  
605 771 638



Pedro Migel Urruzuno kalea

Hitzordurako:  
943 25 61 05



Urazandi Kalea, 9 behea

Hitzordurako:  
646 563 706



Erretsundi kalea, 1

Hitzordurako:  
688 765 166



Trenbide Kalea, 21

Hitzordurako:  
943 24 28 05



Santa Ana Kalea.

Hitzordurako:  
943 74 40 26



Trenbide Kalea, 13

Hitzordurako:  
943 74 01 91



Errosario Kalea, 7

Hitzordurako:  
943 74 36 79



## MAKILA KOLPEKA

✍️ Ainara Argoitia  
 📷 Asier Orbea / Ainara Argoitia

Makila eskuan hartuta, barikuan irten ziren kalera Elgoibar Ikastolako eta Mendaroko eskolako ikasleak kantura. Herri Eskolako LH5ekoak, berriz, Etxegiñaren korura batu ziren zapatuan, Santa Ageda bezperan. Usadio zaharrari eutsiz, kalez kale ibili ziren Etxegiñakoak kantuan eta Caritasentzako diru eskean, eta baserriz baserri, Elgoibarko Izarrakoak. Estreinakoz, familien taldea ere osatu du aurten Elgoibarko Izarrak, eta hiru taldeak batuta, 60 bat lagun jardun ziren koplak kantuan zapatuan, sekula ez beste lagun. Mendaron ere hiru talde osatu zituzten ohi legez, eta Garagartzako, Mendarozabalgo eta Arno aldeko baserrietako atariak eta kalea koplatu zituzten. Mendaron batutako dirua Gazteak herriko euskal dantzari taldekoentzat izan da aurten. Argazki gehiago eta bideoak: [barren.eus](http://barren.eus)







Jabier Arrizabalaga *Ziardak* azken santa eskea izan du aurtengoa. 1994tik hutsik egin gabe jardun dira koplari German Meabebasterretxea eta biak Elgoibarko Izarrarekin. Zapatuan, eguneko lanak amaitutakoan, bazkalostean, omenaldia egin zioten Elgoibarko Izarrako santa eskekoek Idotorbeko elkartearen, eta orogarria ere eman zioten hainbeste urtean kantukide izan dutenari. Bertsotan eskertu zien *Ziardak*.







## 'Hobe ixilik' antzezlan gaur, Herriko Antzokian



Txalo Produksioak konpainiak *Hobe Ixilik!* antzezlan taularatuko du gaur iluntzean Herriko Antzokian. Itziar Ituño eta Ramon Agirre izango dira aktore protagonistak. Bata zein bestea, biak ala biak elkarri kontu-kontari eta,aldi berean, eztabaidan ikusiko ditugu: "Ez zenuen zertan esan! Eta, batez ere, fede txarreko baten aurrean". Gaur egun, edozer esanda ere, eztabaidarako gai bihurtu daitekeela erakutsiko dute aktoreek: *Me Too*, aldaketa klimatikoa, amatasun subrogatua... Eztabaidak edozein une eta lekutan agertzen dira, baina non eta nola eztabaidatzen den beste kontu bat da. Horri buruzko hausnarketara bultzatuko dute publikoa. Sarrerak salgai daude dagoeneko *herrikoantzokia.eus* webgunean, baina txarteldegian ere jarriko dituzte salgai, emanaldiaren aurretik. 19:00etan hasiko da ikuskizuna.

## Villabonako auresku txapelketan parte hartu dute Elgoibarko dantzariak

Amasa-Villabonan jokatu zuten domekan Gipuzkoar erako gazteen auresku txapelketako bigarren jardunaldia, eta partaideen artean Elgoibarko Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako dantzariak ere izan ziren. B sailean Haizea Luluaga eta Unax Ansola aritu ziren. Txapelketa batean estreinako aldiz aritu zen Luluaga. Ansolak eskarmentu handiagoa du era honetako txapelketetan eta hirugarren postua eskuratu zuen. D sailekoekin egin zuen dantza Elaia Etxanizek. "Hirurak aritu ziren maila onean, maila ona dutelako", esan dute eskolako dantza arduradunek. Hurrengo jardunaldian, etxean arituko dira, Elgoibarko Auresku Txapelketan. Martxoaren 12an izango da, Herriko Antzokian, eta Elgoibarko zazpi dantzari igoko dira oholtzara: Irene Toledano, Haizea Luluaga, Sare Meabebasterretxea, Unax Ansola, Uxue Cabrera, Duna Santos eta Laia Etxaniz.



## Abeeha Naveed eta Alaitz Pascual saritu dituzte orri-markagailu lehiaketan



*Itsasoa zainduz, etorkizuna babestu* izan da lehiaketako gaia eta 730 lan aurkeztu dituzte herriko eskola umeek (iaz 504 orri-markagailu aurkeztu zituzten). Bi mailatan banatzen dute lehiaketa. Lehenengoan, Lehen Hezkuntzako 5. mailara artekoetan, Abeeha Naveedek aurkeztutako orri-markagailuak jaso du lehen saria, eta bigarrenengoan, LH6tik aurrerakoan, Alaitz Pascualen lana saritu dute. Bi sarituek tablet bana jaso dute saritzat. Gemma Monrealek eta Paula Herasek osatu dute epaimahaia. Sari banaketa datorren astean egingo dute.


# Hitanoa eta emakume erreferenteak ezagutarazteko telefonorako aplikazio berriak

**E**skuko telefonorako aplikazio berri biren berri ematera gatzogaur. Hitanoa ikasteko aukera ematen du batak (*Appa hi!*), eta emakumeei dagokien aitortza egiteko sortu dute bestea (*EmariAPP*).

Badihardugu euskara elkarteak garatu du *Appa hi!*, CodeSyntaxekin elkarlanean eta Gipuzkoako Aldundiaren babesarekin. Aurrez, Oñatiko hitanoa ikasteko aplikazioa sortu zuten Ingo Xonau! proiektuaren baitan. Ingo xonau! proiektua herri ekimenetik sortu zen Oñatin 2019an, bertako hitanoa biziberritzeko asmoz. Konturatu ziren andrazkoen hika (noka) galtzen ari zela herrian, hiztun gazteenek 50 urte inguru zituztelako, eta horri buelta emateko asmoz batu zen herritar talde bat. Orduan jabetu ziren hitanoa ikasi eta zabaltzeko gogoaz bazegoela herritarren artean, bazegoela interesa, baina horretarako mota askotako tresnak beharko zituztela bereziki gazteengana iristeko, besteak beste teknologia berriek eskaintzen dituztenak. Eta Oñatirako sortu zuten aplikazioak izan zuen arrakasta ikusita sortu dute gerora euskara baturako bertsioa. Aplikazioa doakoa da, eta PlayStoren dago eskuragarri.

Bost astean hitanoa ikasteko aukera ematen du aplikazioak, ondo erabilia. 35 egunean, egunero pilula batean, informazio jakin bat ematen du: azalpenak, marrazkiak -Mirari Sagarzazu marrazkilaria- eta bideoak, adibideekin. Ondoren, azalpenekin lotutako galdera-sorta bat dator: partidak direnak. Galdera guztiei zuzen erantzunez gero, hurrengo egunean beste pilula bat egiteko aukera du erabiltzaileak. Eta bestela, berriro saiatu daiteke, partidak errepikatzeke aukera ematen duelako. Nahi beste aldiz egin daitezke ariketak, ondo egin arte. Astero-astero errepaso bat egiteko aukera ere ematen du, eta gaingiduz gero, maila igotzeko aukera dago. Guztira bost maila dira gaingiduz beharrekoak, aste bakoitzeko bat. Bakoitzak bere erritmora egin dezake prozesua.

Kalaka kooperatibak sortu du *EmariAPP* aplikazioa Emakunderen eta Gipuzkoako, Arabako eta Bizkaiko foru aldundien babesarekin. Komunikazioa eta parekidetasuna dira Kalakaren lanaren ardatz nagusiak eta historiako eta gaur egungo emakumeak ezagutarazteko jolasa da *EmariAPP*. Egunean emakume erreferente bat ezagutzeko aukera eskaintzen du jolasak. Partida bakoitzean gehienez bost pista ager daitezke, eta erantzuteko denbora mugatua da: minutu bat eta hogeita hamar segundu. Pistak banaka ematen dituzte, eta gehiago behar izanez gero bakarrik erabili behar da hurrengo pista, puntuazio altua nahi duenak ahalik eta pista gutxien erabili beharko baititu erantzun zuzena emateko. Profila sortzen duenak, gainera, jolaserako beste emakume batzuen fitxak sortzen ere lagundu dezake, proposamenak eginda. Aplikazioa doakoa da eta PlayStoren dago eskuragarri.



## Musika Eskolako kalejirarekin hasiko dira Elgoibarren inauteriak Eguen Zuri Egunean

**H**erriko eragileek egitarau zabala prestatu dute inauteriak ospatzeko. Eguen Zuri Egunean hasiko dira ekintzak Musika Eskolako kalejirarekin, eta barikuan izango da Ikastolako Euskal Inauteria. Ikasleak mailaka mozorrotuta irtengo dira 15:00etan Ikastolatik, eta kalejiraren ostean, Kalegoen Plazan egingo dute dantzaldia. Egun horretarako, Sinuösek urteroko inauterietako kontzertu berezia egingo du. Sotoan izango da 23:00etan. Hilaren 18rako, bestalde, hainbat ekintza egongo dira: Eguerdian, Haritz Dantza Taldekoek marrazki lehiaketako sariak banatuko dituzte, eta segidan, Inguma taldearekin Herri Dantzak izango dira Kalegoen plazan. Arratsaldean, umeentzat Atxutxikaraokea egongo da Maalan, eta helduagoentzat bertsio gaua, 00:00etatik aurrera. Arratsaldean Mauxitxa txaranga irtengo da kaleak alaitzera, erraldoi eta buruhandiek. Martitzenean amaituko da aurtengo mozorro



festa, eta egun horretan, Kantu Kolore taldearen ikuskizuna, Mauxitxa txaranda eta jubilatuen Biltokian mozorro lehiaketa izango dira.

Mendaron, bestalde, playback lehiaketa egingo dute hilaren 18an, 19:00etan. Izena emateko mezu bat idatzi behar da [ekintzakarno@gmail.com](mailto:ekintzakarno@gmail.com) helbidera, taldekideen adina, partaide kopurua eta abestia zehaztuz.

---

### Bizenta Mogel Ipuin Lehiaketa irabazi du Maite Lopez Las Heras idazleak

Elgoibarko bizilaguna den Maite Lopez Las Heras idazle azkoitiarrak irabazi du Bizenta Mogel ipuin lehiaketaren aurtengo edizioa. Idazlea, poeta eta itzultzailea da Maite Lopez Las Heras. Plazaratu dituen azken lanen artean daude, besteak beste, *Amatu* saiakera liburua, *Poetandreak* literatura greko-latindarreen poesia lana eta *Ibilbidea* itzulpen liburua. Oraingoan lehen saria eskuratu du Azkoitiko Kultur Elkarteak eta Udalak antolatzen duten Bizenta Mogel Ipuin Lehiaketan, *Haize Hego* ipuinari esker. Lehiaketa horren helburua euskara eta literatura uztartzea eta indartzea da, sortzaileei aukera bat eskaintzea ere.




---

### KI.Imak taldeak kontzertua emango du domekan, Aita Agirre kulturgunean

KI.Imak taldeak kontzertua emango du domeka eguerdian Aita Agirre kulturguneko sarreran. Taldea 2018an sortu zuten, eta hasieran kontzertuak ematen jardun baziren ere, Covid-ak eten egin zuen beraien jarduna. Etenaldi horretan prestatu zituzten aurreko diskoa osatu duten sei kantak. 2021eko urrian kaleratu zuten *Euskal Herriko runba* izeneko diskoa. 12:30ean hasiko da kontzertua eta doan izango da.

# NORA ASTIGARRAGA

Dantza ikaslea

✍️ Ainhoa Andonegi 🗣️ Nora Astigarraga

Nora Astigarragak (Elgoibar, 2001) ume-umetatik du gustuko dantza. Ahizpa nagusia hasi zen dantza eskoletara joaten, eta bera oraindik adinez txikiegia bazen ere izena emateko, eskola haiek ikustera joaten zen. Ahizpari begira konturatu zen dantzatzea gustatzen zitzaiola, eta ahal bezain pronto eman zuen izena Biraka dantza eskolan. 18 urte egin arte aritu zen bertan, eta Batxilergoa bukatu zuenean, dantzaren bidetik segitzea erabaki zuen. Madrilen bizi da gaur egun, eta goi mailako dantza batean ari da ikasten. Bost urteko ikasketak dira, eta momentuz hirugarren mailan dago. Ikastea da gaur gaurkoz bere helburua, badakielako dantzariarena lanbide gogorra dela, baina hala ere, etorkizuna dantzaren bidetik egin nahiko luke.



*“Dantza garaikidea oso zabala da eta herrialde batetik bestera asko aldatzen da”*

## Nola erabaki zenuen goi mailako dantza ikasketak egitea?

Batxilergoa egiten ari nintzela ez nekien zer ikasi nahi nuen ondoren. Ez nuen Batxilergo artistikoa egin, gizarte alorrekoa egin nuen, baina argi neukan bakarra zen dantza egitea gero eta gehiago gustatzen zitzaidala. Amarekin hizketan jardun nintzen ikasketei buruz, eta pentsatu genuen dantzarekin zerikusia zeukan ikasketaren bat egitea aukera ona izan zitekeela. Madrilerara begira jarri nintzen une horretan, Madrilen askoz aukera handiagoa dagoelako. Dantza eskolak daude, musika eskolak... Kultur eskaintza ere handia da, ia egunero daude ikuskizunak, denetariko eskaintza dago eta dantzarako bereziki, Espainiako aukera zabalena Madrilen dago. Hortaz, Batxilergoa bukatu eta badaezpada, unibertsitaterako hautapropa ere egin nuen, baina dantzaren bidea jorratzen hasi nintzen. Madrillgo bi eskolatan egin nituen sarbide probak, eta Danza 180 eskolan hartu

ninduten, hain justu ere, nik nahi nuen eskolan. Eskola pribatua da eta formakuntza profesionala ematen dute. Ikasketak bukatzen ditudanean titulazio pribatu bat eskuratuko dut. Eskolako zuzendaria Iker Karrera da, dantzari euskalduna. Iaz Gipuzkoako Dantza Saria eman zioten, *Fama a Bailar* programako zuzendaria ere izan da eta *Mamma mia* musikaleko koreografoa. Beste zuzendaria Fernando Lazaro galiziarra da, hau ere oso ezagun. Dantza munduan ezagunak dira gure eskolako irakasleak.

## Zein motako dantza ikasten ari zara?

Dantza garaikidea ikasten ari naiz. Orain dela lau urte iritsi nintzen Madrilerara, 18 urte nituela. Iaz lesio bat izan nuen, eta horren ondorioz Elgoibarrera itzuli nintzen. Behatz lodiko lotailuak puskatu nituen, eta luzaroan egon naiz dantza egin ezinda. Ia urtebetez egon naiz geldia. Irailean egin zidaten ebakuntza, eta Gabonen ostean hasi naiz berriz klaseetan poliki-poliki. Bost urteko



kurtsoa da, eta iaz lesionatu nintzenez, orain hirugarren maila errepikatzen ari naiz. Esan didate maila ona erakusten badut laugarren mailara pasatuko nautela, baina momentuz hirugarren mailan nago.

### **Nolakoak dira zure ikasketak?**

Oso praktikoa da dena. Egunero edukitzen dugu dantza klasikoko eskola bat eta dantza garaikidearen teknikaren bat, eta norberak aukeratu duen espezializazioaren arabera, dantza eskola pertsonalizatuak ere jasotzen ditugu. Nik dantza garaikideari buruzko klase bereziak jasotzen ditut, esaterako. Kurtso amaieran Gran Viako aretoren batean egiten dugu dantzaldia eta oso ondo egoten da. Konpainia askotako arduradunak joaten dira eta ezagutzera emateko aukera izaten dugu. Dantzaren Historia ere ikasi behar dugu; hori eskola teorikoa da, baina norberak aukeratzen du gai hori zein ikasturtetan landu. Teoria apur bat ere garrantzitsua da, dantzaren oinarriko jakintzak ezagutzeko, baina bestela gehiena praktikoa da. Egunero lau ordutik gora egoten naiz eskolan, eta nire bizitza dantzaren bueltan antolatzen dut. Dedicazio

handia eskatzen du dantzak, konstantea izan behar da. Fisikoki zaintzea eta lo ondo egitea ere garrantzitsua da, horregatik egiten ditudan plan gehienak ere egunez egiten ditut.

### **Nondik datorkizu dantzarako zaletasuna?**

Nire ahizpa Biraka dantza eskolan hasi zen Josu Mujikarekin, eta ni ikustera joaten nintzen. Oraindik ez neukan eskoletan izena emateko adinik, baina ahizparen klaseak ikusteko baimena eman zidaten, eta han egoten nintzen adi-adi. Aukera izan nuenean eman nuen izena nik ere, 3 edo 4 urterekin. Nire ahizpa konturatu zen berari ez zitzaiola hura gustatzen eta berehala laga zuen, baina ni 18 urtera arte egon nintzen Birakan, eta Elgoibarren biziko banintz, gaur egun ere jarraituko nukeen, seguru. Birakan dantza klasikoa lantzen da batez ere, baina horrez gain

*"Dedicazio handia  
eskatzen du dantzak eta  
oso konstantea izan behar da"*

nik Hip-hop eta beste dantza estilo batzuk ere praktikatu izan ditut. Donostian edo Hondarribin egiten diren dantza jaialdiren baten ere hartu izan dut parte, dantza garaikidea praktikatzeko.

**Aste honetan 'Berriak' erreportaje bat argitaratu du dantzaren munduan dagoen prekarietatearen inguruan. Nola ikusten duzu zuk etorkizuna?**

Espainia mailan Madrilen dantzarako aukera handia dago, bai ikusteko eta bai dantzatzeko. Konpainia asko daude, eta badago aukera. Lan gogorra da, eta irakasleekin askotan hitz egiten dugu horri buruz. Ez da ondo baloratutako lanbidea, dantzariak gaizki ordainduta daude eta askok beste lan batekin uztartzen dute dantzari izatea... Baina uste dut hori hasi dela aldatzen. Abeslariak gaur egun hobeto ordaintzen diete dantzariari, baina egia da atzerrian gehiago baloratzen dutela lanbide hau. Dena dela ez dut gehiegi pentsatzen horretan. Azken batean sektore askotan dago prekarietatea, eta gazteentzat lana bilatzea zaila izaten da orokorrean. Lesionatu nintzenean Psikologia ikasten hasi nintzen badaezpada, baina nire ametsa dantzari izatea da, eta horretarako ondo prestatu behar naiz. Nire asmoa da aurrerantzean audizio desberdinetan parte hartzea, hori zer den ikasteko. Lan-elkarriketak beharrean guk audizioak egin behar izaten ditugu, eta proba horiei aurre agiten ikastea garrantzitsua da lanean hasi behar dudanerako. Ahal dudan gehien

*"Madrilen oso gustura bizi naiz,  
baina etorkizunean  
atzerrian ikusten dut nire burua"*

ikasi nahi dut, eta horretarako atzerriara joatea gustatuko litzaidake. Alemania, Frantzia edo Israelgo hainbat dantza konpainia begiz jota ditut eta gustatuko litzaidake atzerrian ere formatzea. Dantza garaikidea oso irekia da, eta herrialde batetik bestera asko aldatzen da. Niri Israelgoa asko gustatzen zait, eta Alemaniakoa ere bai. Sei hilabeteko programa batzuk egoten dira atzerrian ikasteko, eta gero bertan lan egitea nahiko nuke. Madrilen oso gustura bizi naiz, aukera handia daukan hiria da, baina etorkizunean, atzerrian ikusten dut nire burua.

**Dantza ikasi nahi zenuela esan zenuenean, nola hartu zuten etxean?**

Oso ondo hartu zuten, eta beti babestu izan naute. Batxilergoa amaitu eta zer ikasi ez nekienean ama bera izan zen dantza ikastera animatu ninduen. Berari ere asko gustatzen zaio, zaletasun bera daukagu, eta emanaldi askotara joaten gara elkarrekin. Lesionatuta egon naizenean ere pila bat animatu nau. Aitari ere gustatzen zaio, eta bera ere hor dago hasieratik. Gurasoen babesa edukitzeak asko laguntzen du.





## Parte-hartze handia egon da euskal pilota egokituko paleta topaketan

**G**ipuzkoako Kirol Egokituen Federazioak antolatuta, desgaitasuna duten pertsonentzako euskal pilota egokituko paleta topaketa egin zuten aurreko zapatuan, Elgoibar Ikastolako pilotalekuan. Denboraldi honetan egiten duten era honetako bigarren

jardunaldia izan da Elgoibarkoa, Gipuzkoako Kirol Egokituen Federaziotik azaldu dutenez. Honakoa Elgoibarko Udalaren eta beste zenbait elkarte eta eragilerekin elkarlanean antolatu dute, eta parte-hartze handia eduki zuela nabarmendu dute.

### Autobusa jarriko dute Elgoibartik Lilatoira joateko, doan



Elgoibarko Lila Emakumeen Etxeak autobusa antolatu du martxoaren 5ean Donostian egingo duten Lilatoi lasterketa herrikoira joateko. Debaldekoa izango da. Lilatik azaldu dutenez, kirola eta erreibindikazioa uztartzen dituen Lilaton lasterketan parte hartzen duten korrikalariek lehenetsuna izango dute garraioa erabiltzerakoan. Hala ere, senideentzako lekua ere egongo dela aurreikusten dute. Autobusean joan nahi dutenek honako esteka honetan eman beharko dute izena: <https://labur.eus/pWJ18>

### Zuzendaritza aldaketa lantzeko batzarrera deitu du Sanlok

Sanlo eskubaloi taldeak jakitera eman duenez, ezohiko batzar "garrantzitsua" egingo dute otsailaren 16an, eta parte hartzera dei egin die bazkideei. Musika Eskolako auditoriumean izango da, 19:30ean. Azken zortzi urteetan kirol taldea gidatu duen zuzendaritzak amaitutzat eman du ibilbidea. "Arrazoa da zortzi urtez Sanlo bezalako klub garrantzitsu baten buru izateak suposatzen duen higadura, ez dago besterik. Erreleboa emango diguten lagunak eta ideia berriak beharrezkoak dira. Zuzendaritza hartzeko prest daudenei laguntzeko eta trantsizioa errazteko prest gaude gu", azaldu dute. Zuzendaritza berria datorren denboraldian eurekin lanean hastea dela egokiena uste dute, eta pausoz pauso klubaren kudeaketa osoaz arduratzea. Hala ere, inork berehala hasi nahi badu ere, ongi hartuko dute. Zuzendaritzaren gaia landuko dute batzarrean, sor daitezkeen zalantza eta galdera guztiak argitzeko. "Gaia zein den jakinda, oso garrantzitsua da ahalik eta guraso gehienak batzea batzarrera, han erabakiko baita klubaren etorkizuna", esan dute.



## Vibram taldean eta gogo Mont Blancoko Ultra Trailean jarrita hasiko du denboraldia Maite Maiorak

**M**aite Maiorak beste talde batekin hasiko du mendi lasterketen denboraldia. Lau urtean Raidlight taldearekin aritu ostean, Vibram talde italiarraren koloreekin arituko da aurrerantzean jokatzeko dituen lasterketetan. Maiorak esan du mendiarekiko duen lilura orain dela urte asko piztu zela beragan, eta oraindik gogoan dituela mendira joateko erabiltzen zituen lehen bota haiek. "Ehunka kilometro igo, konta ezin beste aldapa zein mendi igo, lasterketak lehiatu eta era guztietako esperientziak bizi eta gero, emandako pauso bakoitzak nire hastapenetako amets eta emozio guzti haien inspirazio izan ziren markara gerturatu naute, Vibram taldera. Lana eginda eta ahaleginduta, handitu egiten dira edozer lortzeko aukerak, eta pertsona arrunt bat apartekoa izatera heltzeko bidea izan daiteke; horixe da Vibramek eta nik partekatzen dugun filosofia. Espero dut nire ekarpentxoak egitea eta datozkigun erronketan taldekideei laguntzea", adierazi du. 2011n sortu zuten Vibram mendi lasterketen taldea, eta ezaguna egin da euren leloa: *Ordinary people being extraordinary* (pertsona arruntak apartak izaten).

Maiorak aurreratu duenez, "inongo dudarik gabe", Mont Blancoko Ultra Traila (UTMB) izango du 2023rako helburu nagusia. Irailean jokatuko dute munduko mendi lasterketa luzeetan ospetsuena den 171 kilometroko proba. Chamonixen hasi eta bukatzen da, Mendi Zuriari itzulia ematen dion ibilbidea osatu eta gero. Maiorak hirugarren egin zuen 2019an jokatu zuten UTMBn eta bertan behera laga behar izan zuen 2021ekoan, 88. kilometroan zihoala, urdaileko minak estu hartuta. "Mont Blancoko Ultra Trailean parte hartzea izango da berriro ere denboraldirako nire helburu nagusia, baina, horretarako dortsala eskuratu beharko dut, eta horixe dut erronka orain. Munduko mendi lasterkari askok eta askok estimu handitan duten lasterketa denez, ez da erraza dortsala lortzea. Distantzia luzeko beste probaren batean postu on bat egitea eskatzen didate antolatzaileek. Aukera guztiak karta batera jokatzeko arriskutsua izan daitekeenez, bi probetan saiatuko naiz postu on hori lortzen. Apirilaren 18an Kroazian jokatuiko den



📷 FotoIosu

100 kilometroko mendi lasterketa batean hartuko dut parte. Eta, maiatzean, Frantziako Altsazian jokatuiko den ehun miliako proba batean. Eta, horietan Chamonixerako dortsalik lortuko ez banu, uztailean izango nuke azken aukera, Araneko haranean jokatuiko den proban. Nire asmoa, baina, ez da uztailean arte zain egotea. Aurrez jakin nahi dut UTMBn lehiatu ahal izango naizen ala ez".

Motorrak berotze aldera, Kanariar uharteetan hasiko du denboraldia. Transgancanaria probako 45 kilometroko proban lehiatuko da otsailaren 24an. Eta noski, Kilimon Trail lasterketaren data gorritz markatuta dauka egutegian. "Lasterketa luzei begira nago, ultra distantzietako lasterketetara bideratuta egongo da nire prestaketa guztia, baina zalantzarik gabe, etxeko lasterketan ere hartuko dut parte. Postu on bat lortzeko aukera handiegirik izango ez dudala uste dudana arren, herrian da, eta egitera noa", esan du apirilaren 1ean jokatu duten Mendaroko lasterketaz.

**LANA**

**Eskaerak**

Adinekoak zaintzeko edo garbiketara lanak egiteko prest nago.

Esperientzia eta beharrezkoak diren tituluak ditut. **631 319 476**

Umeak edo adinekoak zaintzen egingo nuke lan eta garbiketara lanak egiteko ere prest nago. Esperientzia daukat **685 724 861**

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan, Elgoibarren, Eibarren, Mendaron nahiz Sorluzen. Gaeuz ere bai. **605 402 030**

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. **641 322 939**

Adinekoak zein umeak zaintzeko, garbiketara lanak egiteko edota sukaldatzen, eraikuntzan, lorazaintzan... lan egiteko prest nago. **613 231 917**

Adinekoak eta umeak zaintzeko, garbiketara lanak egiteko, edota sukaldatzen, eraikuntzan, lorazaintzan... lan egiteko prest nago. **604 881 745**

**Eskaintza**

Pertsona bat behar da umeak zaintzeko, goizez, umeak eskolara eramane bitartean. **637 951 010**

Adineko bat zaintzeko pertsona baten bila gabiltza, etxeko langile moduan lan egiteko. **688 678 934**

**ETXEBIZITZA**

Etxea daukat alokatzeko: Trenbide 17 - 4. pisua. Bi logela, bi komun eta garaje itxia, igogailuarekin. [inaetxan@gmail.com](mailto:inaetxan@gmail.com)  
**600 364 040**

Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. **659 083 325**

**BESTELAKOAK**

Scooter elektrikoarekin invacare Orion modelo saltzen da. Pertsonalizatua, larruz egokitutako eserlekuarekin. **659 329 118**



Merkatu txikiko iragarkiak bi astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta).  
Autoak saltzea: 18€ .  
Bestelakoak: 10€.

Iragarkiari erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:  
Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta).  
Autoak saltzea: 15€.  
Bestelakoak: 8€.

Iragarkiari erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas  
Euzko Eskola Administrazioaren Lanbide-Iturria



**ROSA Mª PINTADO**

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749


660 969 679

rosapf@telefonica.net

**Patioan eta fatxadan obrak egitea azertzen ari gara gure komunitatean. Bi fasetan egingo genituzke. Jakin nahiko genuke eraikin berean dauden lokal komertzialen jabeek diru ekarpenik egin behar duten obra hauek finantzatzeko. Etxebizitzaren jabe garenok kuota bera ordaintzen dugu hilean eta ezohiko kuota bat ere zehazten dugu diru-funts bat sortzeko. Jakin nahiko genuke lokal jabeek ere gure hileko kuota bera ordaindu behar duten ala bakarrik eraikinean duten partaide kuotaren arabera ordaindu behar duten.**

Elementu komunak izatean, lokal jabe horiek derrigortuta daude sortzen diren gastuei erantzutera, dagokien koefizientearen arabera. Printzipioz, beste ezer adosten ez bada behintzat, denek ordaindu beharko dute, dagokien partaide kuotaren arabera. Zuk aipatzen duzun derrama hori Jabekideen Batzarrak onartu behar du, legezko formulismoak beteta.

**AHOLKUA: Mantentze-lan orokorrak egin behar direnean, jabeekide guztiak deitu behar dira batzarrerara, denek eman ahal izan dezaten iritzia egin behar diren obren inguruan, obrak egingo dituen enpresaren inguruan eta diru-kostuaren inguruan.**




**AHOLKULARI KOLABORATZAILEA**  
San Bartolome, 2



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira **BARRENEKO** bulegora, [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara edo **688 655 658** bidalita.



Zorionak, **Julen**, domekan 11 urte beteko dituzulako. Ondo-ondo pasa zure eguna! Muxu potolo bat familiakoen eta bereziki, Sara eta Mikelen partez.



Zorionak, **txapeldun**, astelehenean 7 urte bete zenituelako. Segi orain arte bezain jator. Muxu bat, etxeko eta lagunuen partez.



Zorionak, **Pitxis**, otsailaren 15ean 11 urte beteko dituzulako. Asko maite zaitugu. Etxeko eta lagunuen partez.



Zorionak, **Sare eta Auritz**, gure etxeko piratatoxoei! Segi horren alai! Gaurtik hasita ospatuko dugu zuen eguna. Muxu potolo bat etxeko guztion partez.



## OSTEOPATIA

Victoria Iraegui

Osteopata kolegiatua: 0299 zk.

**TEKNIKAK:** Pediatrikoak / Egiturazkoak / Garezurrekoak / Erraietakoak / Somato-Emozionalak / Posturologia / Drainatze linfatikokoak

### Haurdunaldiaren jarraipena, haurdunaldiko osteopatia erabilia

Haurdunaldian, emakumearen gorputzak eta haren psikeak hainbat aldaketa jasaten ditu, fetua eroso egon dadin umetokian eta behar bezala haz dadin. Haurdunaldiko osteopatiak onura ugari ditu haurdunaldian. Fetua behar bezala garatzeko eta erditzea bera eta erdi ondorengoa ahal den onenak izateko gorputzak jasaten dituen aldaketa horietarako prestatzen gaitu, sortzen diren minak saihesten edota arintzen laguntzen duen heinean.

### Onurak:

Pelbis-egitura lunbarren funtzio on batek mugimendu, egokitzapen eta oreka ona ematen die egiturei, eta haurtoaren buruari ahokatzeko eta irteera egokia errazten dio, pelbisak ez baititu hainbeste finkapen izango eta erlaxatutago eta malguago egongo baita, dilatazio- eta kanporatze-aldia erraztuz.

- Mesede egiten du amaren eta haurtoaren lotura psiko-emozionalean.
- Uteroaren dilatatzeak eragindako organoen desplazatzea orekatzeko du.
- Sistema baskularren eta linfatikoen zirkulazioa eta drainatzea hobetzen du.
- Buruko minak gutxitzen ditu.
- Goizeko goragaleak murrizten ditu.



659 332 423 - 943 740 770

[victoriairaegui@gmail.com](mailto:victoriairaegui@gmail.com)



Pedro Migel Urruzuno 21 behe (Urnobitza alboan)

## EXPRESS ESKAINTZAK!

### BOSCHWAL28PHOES ARROPA GARBIGAILUA



699 €

- 10 kg-ko karga
- 1400 b/min
- Speed perfect
- Programa azkarra: 30 min
- Etenaldia + karga funtzioa
- Amaiera geroratu 24 ordura arte
- I-DOS: garbigarriaren eta leungarriaren autodosisifikazio adimendua

# MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.



IKUS OPTIKA AUDIO  
SOMIA ARRIOLA

**30. urteurrenarekin**  
**5 kamera zozkatuko ditugu.**



Zozketan parte hartzeko  
[@ikus\\_optika\\_audio](https://www.instagram.com/ikus_optika_audio)  
instagramean sartu eta  
pausoak jarrai itzazu.



## 10 BARIKUA

**16:30** Odol ateratzeak, Elgoibarren. Jubilatuen Biltokian. Txanda hartzeko: 623 328 408

**19:00** Antzerkia: 'Hobe ixilik!'. Txalo Produkzioak taularatuko du, Herriko Antzokian.

## 12 DOMEKA

**9:20** Gaintxipixara mendi irteera (Elgoibarko tren geltokitik). Antolatzaileak: Morkaiko, Herri Eskola eta Elgoibar Ikastola.

**12:30** Kontzertua: Kl.Imak. Aita Agirre kulturgunean. Doan.

**16:30** Familia antzerkia: Futbolariak eta printzesak. Herriko Antzokian.

## 16 EGUENA

**17:30** Musika Eskolako inauterietako kalejira. Musika eskolan hasi eta bukatuko da. Eguraldi txarra bada, Maalan.

**19:30** Sanloren batzar orokorra. Musika Eskolako auditorioan.

## 17 BARIKUA

**15:00** Ikastolako Euskal Inauteria. Ikastolako ikasleek kaleak alaituko dituzte, eta Kalegoen plazan amaituko dute dantzaldia.

**18:30** Bideo foruma: 'Amor bajo el espinó blanco'. Haizeak antolatuta, Lilan.

**19:00** Bilera irekia: Udal Hauteskunderi begirako bilera egingo du Mendaroko EH Bilduk. Udaletxeko pleno aretoan.

**19:00** Hitzaldia: 'Gerrako haurrak Sobietar Batasunean'. Elgoibar1936 taldeak antolatuta Amelia Asensio elgoibartarrak emango du hitzaldia. Musika Eskolan.

**23:00** Sinuöseren inauterietako kontzertua. Kultur Etxeko sotoan.

## Eta, Debabarrean zer?

### Antzerki Jardunaldiak

**Eibar, otsailak 14,  
19:00, Coliseoan**

Otsailaren 14an hasiko dira Antzerki Jardunaldiak Eibarren. Maria Adanez eta Pepon Nieto aktoreek 19:00etan Coliseoan emango duten 'Los papeles del teatro' izenburuko hitzaldisolosalaldia izango da lehen ekitaldia. Aurkezlea Irene Hernando antzezle eibartarra izango da. Martxoaren 31ra bitartean, hogei antzezlan baino gehiago taularatuko dituzte.



**PINTURA ETA DEKORAZIOA**  
**CORDON VILARCHAO**  
cordonvilarchao@telefonica.net  
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26  
**943 740 570 / 636 986 162**



Jon Aranao  
Guillermo Torres  
**Elgoibar Albaitaritzak**

San Roke, 26 - 20670 ELGOIBAR (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337  
Autokorrekio zentroa: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30  
Lanbatak: 11:00 - 13:00

Itzazpaindegi zerbitzua daukagu.  
Denb. ordua hartzeko.



**LAGUNAK**  
colchoneria textil hogar

**%25** eko beherapena  
edozein izara  
eta mantetan!

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)

**Zinea**



**'Babylon'**

11 zapatua: 19:00 / 22:15  
 12 domeka: 19:00  
 13 astelehena: 21:00



**'Eo' (Ongarri)**

15 eguaztena: 21:00

**2023ko botika ordutegiak:** 09:00-13:00 / 16:00-20:00  
 GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)  
 OHARRA: 2023an ez da iluntzeko farmazia zerbitzurik egongo Elgoibarren.

**OTSAILA**

- 10 BARIKUA
- 11 ZAPATUA
- 12 DOMEKA
- 13 ASTELEHENA
- 14 MARTITZENA
- 15 EGUAZTENA
- 16 EGUENA
- 17 BARIKUA

**Egunez**

- Ibañez
- Garitaonandia
- Garitaonandia
- Arriola
- Fernandez
- Yudego
- Oruesagasti
- Barrenetxea

**2023 urte guztian, gauzez: 22:00-09:00**  
**Cristina Sanchez Castaño - Julian Etxeberria, 7 (Eibar)**  
**943 203 052**

■ Fernandez:  
 Herriko Enparantza,4  
 Garagartza (Mendaro)  
 943 756 142


■ Ibañez:  
 Rekalde, 1 (Soraluze)  
 943 751 638

■ Oruesagasti:  
 Kalebarren, 9 (Soraluze)  
 943 751 384



**Martina Vadillo Cañas**

2023ko otsailaren 6an hil zen, 81 urte zituela.  
 Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.



Eskertzak eta urteurrenak **943 743 704 / 943 744 112**  
 Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk - [barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)




Iñigo Lamelas





## **Antonia Urbietta Ansola**

2023ko otsailaren 2an hil zen, 88 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



V. URTEURRENA

## **Jose Miguel Azkoitia Artetxe**

2018ko otsailaren 6an hil zen,  
57 urte zituela

**Gaez zeruari  
begiratzen zain gaituzu:  
zu han, gu hemen.**

Zure familia



IV. URTEURRENA

## **Arantza Berasaluze San Martin**

2019ko otsailaren 8an hil zen, 59 urte zituela.

**Ez zaitugu inoiz ahaztuko,  
ez zaitugu inoiz galduko  
gure bihotz barrenean  
eramango zaitugu betiko.**

Senideak eta lagunak



IX. URTEURRENA

## **Idoia Laka Lizaso**

2014ko otsailaren 3an hil zen, 38 urte zituela.

**Urruti gaudenean,  
lagunak bihotzean eramanaz  
bidea errazago egiten da.  
Ido, egiten duguna egiten dugula  
beti zaude gurekin.  
Maite zaitugu.**

Azkoitiko eta Elgoibarko lagunak



# GU. ZU? ikastola.

**Aurre-matrikulazioa:**  
**otsailaren 13tik 24ra**



**elgoibar ikastola**  
[www.elgoibarikastola.eus](http://www.elgoibarikastola.eus)  
[elgoibar@elgoibarikastola.eus](mailto:elgoibar@elgoibarikastola.eus)  
943744441

**Ate irekiak**  
**otsailaren 13 an**  
**18:00etan**



ikastolenelkartea

